

**GERENTE ANDREAREN 2019KO ABENDUAREN 10EKO EBAZPENA; BERAREN BIDEZ ALDI BATERAKO LAN-POLTSEN 2019KO ZONIFIKATZE-PROZESUAREN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK ONESTEN DIRA.**

**Gerente andrea:**

GUFEn Gobernu Batzordeak, 2018ko apirilaren 13an egindako bilera arruntean, bestek beste, aldi baterako laneko poltsak kudeatzeko irizpideak onetsi zituen, zonifikazio eranskinarekin batera. Testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO, 76. zk., 2018ko apirilaren 20koa; eta okerren zuzenketa BAOren 85. zenbakian, 2018ko maiatzaren 4an) eta GUFEn iragarki-oholean eta web-orrian argitaratu zen.

Erabaki horren bidez, ahalmena eman zitzaion GUFeko gerenteari testu horretan ezarritakoa gauzatzeko, eta, ondorioz, aldi baterako laneko poltsak kategorien arabera aukeratu beharra xedatu zuen. Horrela, Gerentziaren aurtengo azaroaren 8ko ebazpen baten bidez epe bat zabaltzea xedatu zen, zertarako eta aukera-eskubidea egikaritzeko GUFEn aldi baterako lan-poltsak osatzearen eretzearan.

Behin epe hori amaituta, kategoria guztietatik atera diren behin-behineko zerrendak onetsi dira, betiere haietatik bakoitzari dagozkion lan-poltsak eratzeko.

Gai honen eskumena GUFEn gerente andreari dagokio gaikuntzan bertan eta maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera. Izan ere, foru-arau horrek institutu hori eraentzen duten estatutuak aldatu zituen.

Beraz, hau sinatzen dutenak honako ebazpen-proposamen hau aurkezten dizute, aztertu eta onar dezazun:

**EBAZPENA**

**Lehenengoa.**- Kategorien arabera behin-behineko zerrendak onestea, ebazpen honen eranskin gisa doazenak.

**Bigarrena.**- Eranskin horretan dauden pertsonen hamar egun naturaleko epea ematea, abenduaren 11tik 20era, euren detektatzen dituzten okerrak zuzen ditzaten (halakorik egonez gero). Epe hori oker materialak zuzentzeko baino ez da, eta ezin da ezin aldaketarik egin zonifikazioari buruz daborduko eginda dauden aukerei buruz. Detektatzen diren okerrak justifikatzeko dokumentazioa foru-institutu honen erregistro orokorrean aurkeztu beharko da.

**Hirugarrena.**- Baldin eta erreklamaziorik aurkezten ez bada behin-behineko zerrenden aurka, orduan zerrendok automatikoki bihurtuko dira behin betiko, ondorik beste argitalpenik egin behar izan barik.



**Laugarrena**.- Xedatzea zerrenda horiek (eranskinean daudenak) GUFEn iragarki-oholean eta web orrialdean argitara daitezela.

Bilbon, 2019ko abenduaren 10ean.

AUKERAKETA ETA HORNIKUNTZA  
ARLOKO BURUA

  
Sin.: Ma José Larrinaga Artetxe

PERTSONAK ZUZENTZEKO  
DEPARTAMENTUKO BURUA

  
Sin.: Eneko Gutiérrez Coterón

GUFeko gerentearen 2019ko abenduaren 10eko EBAZPENA. Aurreko proposamena ikusi ondoren, osorik onartzen dut. Aurrekoa bete bedi.

  
Sin.: Nerea Urien Azpitarte